

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

360/2021 Foru Agindua, irailaren 22koa. Ebazpena, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1067.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdiarena

Martxoaren 30eko 172/2021 Foru Aginduaren bidez, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1067.001) Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren buru lanpostua berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2021eko apirilaren 21ean argitaratu zen ALHAOn (43 zk.).

Merezimendu emaitzak argitaratu dira, eta Balorazio Batzordeak proposatu du deitutako lanpostu hori Asunción Rodríguez Garcíari esleitzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Asunción Rodríguez García behin betiko atxikitzea Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuaren buru lanpostuari (kodea: 1067.001).

Bigarrena. Esleitutako destinoari ezin izango zaio uko egin, eta ezin izango da lanpostuak betetzeko hurrengo lehiaketa deialdietan parte hartu lanpostuaz jabetu eta hurrengo bi urteetan, salbu eta funtzionarioak lortutako lanposturako atxikipena galtzen badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuaren a) letran xedatutakoaren ondorioz.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2021eko irailaren 30ean utziko du.

Laugarrena. Esleitutako lanpostuaz 2021eko urriaren 1ean jabetuko da.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 22a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR